

ZARAUZ / Iaz ,70.000 erabiltzaile Sanz Eneako liburutegietan

Erabiltzaile kopuru handia izan dute Sanz Eneako bi liburutegiek.

ZARAUZ. DV. Liburutegiko iazko erabilera datuak jakin berri ditugu. 2007 urtean zehar, 70.000 erabiltzaile izan ziren haur eta helduen liburutegian eta 49 ekintza burutu haur, gazte zein helduentzat bideratuak irakurzaletasuna bultzatzeko. Hala nola, ipui kontaketak, erakusketak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak...

Bestalde, apirilaren 23an, Haur liburutegian, 36 bazkidek egin zuten maileguren bat eta guztira, 91 dokumentu mailegatu ziren. Horien artean zozketa bat egin zen Arantza Iturria Kultura zinegotzia bertan zela. Ondorengoak izan dira sarituak: Dima Vicandi, Ainara Agirre, Ione Albisua, Manu Agirrezabal, Angelica Sanchez, Ion Etxabe, Lorena Marcos eta Eki Elorrieta. Saritu guztiek, Pello Añorgaren ' Gerlari handia ' liburua jasoko dute.